



Bazkide estimatuak:

Lehenik eta behin, familiarekin edo/eta lagunekin uda atsegina eta osasungarria igaro izana opa dizuegu.

Udazkenean, ikasleentzat ikasturtea hasten den bezala, Elkarte gisa aktibatzen gara berriro ere eta jardueren hasieraren berri emateko unea da.

Larunbatetako mendi, mendi-ibilaldi eta ibiltariak dagoeneko hasi dira, irailetik abendura bitarteko programazioetan zehaztutako irteerekin.

Elkartearen web orrian Mendi eta Mendi-ibilien egutegiak eskuragarri daude. Jarduera hauei buruzko informazioa gehigarri eskatzeko, arduradunekin jarri zaitezke harremanetan: **Mendi** – Juan Muñoz (tel. 685723606). **Mendi-ibiliak** – Maite Turrillas (tfno. 656719407) eta **Larunbatetako ibiltariak** – Josean Pérez (tel. 630558827).

"Mendi-ibilietarako Irizpideak eta Jardunbide Egokiak" dokumentua ere eguneratu da (web-orrian eskuragarri).

Bizitak : Urriaren 28rako, asteartea, Atapuerca mendilerroko aztarnategiak bisitatzeko txangoa antolatuta dago, honako programa honekin: **Bilbotik 08:00etan irtengo da** Bilbobuseko Luis Power 4an dagoen gerealokuan (Deustuko Polikiroldegia). Goizean aztarnategiak eta CAREX (Arkeologia Esperimentaleko Zentroa) bisitatuko dira. Burgos hiriko jatetxe batean bazkaldu ondoren, hirian den Giza Eboluzioaren Museoa bisitatuko da. **Plazen kopurua 50 da eta interesatuak Josean Pérez (tel. 630558827) edo Arantza Albainarekin (tel. 678149714) harremanetan jarri beharko dira. Txangoaren prezioa 30 euro dira eta egunean bertan jasoko dira.**

Hitzaldia: Atapuercako txangoa girotzeko, **urriaren 21ean, asteartea**, Deustuko Bidarte Gizarte Etxean, **19:00etan, Josetxu Villacorta** Deustuko Unibertsitateko irakasle erretiratuak emango duen hitzaldia antolatu da. **Nola eta noiz hasi ginen gizakiak izaten?**

Kontzertuak : Laster jakinaraziko da Gabonak arte San Pedro elizan egiten diren kontzertuen egutegia.

ELKARTEKIDEEN OROIGARRIA

- Elkarteak **webgune** bat du, jardueren programazioa eta jardueren garapenari buruzko ondorengo aipamenak argitaratzeko. <https://www.asociacionfamiliasdeusto.com>
- Elkartearen komunikazioak posta elektronikoz jaso daitezke, ahalik eta azkarren eta paper-kontsumo txikiagoarekin. Interesdunek beraien helbide elektronikora helaraz dezakete honetara: asociacionfamiliasdeusto@gmail.com

Lehendakaria
Jorge Herrera Torres.